



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN LEHEN BATZARRAREN AKTA

BERTARATUAK
alkate-lehendakaria
LEYRE GORDO CASTRO
zinegotziak
JOSE M ^a SARASOLA ETXEBERRIA
AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA
ENEKO ELOLA JAUREGI
MIREN JOSUNE ZUBELDIA ETXEBERRIA
IGO EIZAGIRRE SAEZ
OIER MINTEGI ZEBERIO
IDAZKARIA
ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2015eko ekainaren 16an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate Leyre Gordo Castro lehendakaria izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak, Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986ko Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoa betetzeko; artikulua horren arabera, Udala eratzeko bilkuraz geroztik hogeita hamar eguneko epean, alkateak Osoko Bilkuraren ohiko edo ezohiko batzarretarako deialdiak egingo ditu, Tokiko Udalbatza berriaren funtzionamendua finkatzeko.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio udal buruak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Udal-hauteskundeak 2015eko maiatzaren 24an eginda, Udal hau eratzeko 2015eko ekainaren 13an egin zen Osoko Bilkuraren akta onartu da.

BIGARRENA. UDALBATZA ZENBATERO BATZARTUKO DEN ERABAKITZEA.

2015eko maiatzaren 24an ospatutako hauteskundeak direla eta, 2015eko ekainaren 13an ospatutako bilkura berezian, Udal berria osaturik, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatza zenbatero batzartuko den erabaki behar da.

Apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkeran, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 a) artikulua, herriko biztanlegoaren arabera, Udal Batzarrak ospatzeko gutxiengo aldikotasuna ezartzen



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

du; biztanlegoa 624 biztanle izanik, Udal Batzarrak gutxienez hiru hilabetean behin egitea bidezkoa da.

Guzti horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenaren 38. artikulua xedatutakoaren arabera, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 a) artikulua ezartzen dituen gutxiengo aldizkakotasuna kontuan izanik, Alkatetzak, zera proposatzen du:

ERABAKIA

LEHENENGO.- Udalaren Bilkura Nagusiak, Udaletxeko Areto Nagusian, hiru hilero ospatzea, ezartzea.

BIGARREN.- Alkateari ahalmenak ematea, justifikatutako arrazoiengatik, Bilkura nagusiko egunak aldatzeko.

Gai hori bozketara eraman da, eta aho batez onartu dute.

HIRUGARRENA. ALKATEORDEEN IZENDAPENA

Alkateordeen izendapenari dagokion Ebazpena onartu duen 2015eko ekainaren 15 datako Alkatetzaren Dekretuaren berri ematea; hau da bere edukia:

ALKATEAREN DEKRETUA

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duenak, bere 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkateari dagokio, Alkate Ordeak izendatzea.

Horren arabera, ERABAKI DUT:

1.- Lizartzako Udaleko Alkateorde hauek izendatzea:

- 1.- JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA
- 2.- AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

2.- Izendatutakoei dagokie ordezkapena egitea Alkatea ez dagoenean, edo eta gaixo edo oztoporik badu bere funtzioak betetzeko; baita ere, Alkate berriak jabetza hartzen duen bitartean, kasua balitz.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

3.- Ebazpen hau, interesatuei jakineraziko zaie, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuaz, eta ospatuko den hurrengo Batzar Nagusiari jakinerazpena eginaz.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

LAUGARRENA.- UDALAREN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO
ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDALAREN
ORDEZKARIAK IZENDATZEA

2015eko maiatzaren 24an ospatutako hauteskundeak direla eta, 2015ko ekainaren 13an ospatutako bilkura berezian, Udal berria osaturik, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa ikusten da, Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea egoki ikusten da.

Guzti horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako UEAF legearen 38., 123tik 127ra eta 134tik 138 bitarteko artikulua xedatutakoaren arabera, Alkatezak, zera proposatzen dio Udal Batzarrari:

ERABAKIA

LEHENA.- Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA LEYRE GORDO CASTRO
GIPUZKOAKO URAK	MIREN JOSUNE ZUBELDIA ETXEBERRIA IGO EIZAGIRRE SAEZ
TOLOSALDEA GARATZEN	ENEKO ELOLA JAUREGI JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA
TOLOMENDI	JOSUNE ZUBELDIA ETXEBERRIA ENEKO ELOLA JAUREGI
EUSKAL FONDOA	AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA OIER MINTEGI ZEBERIO
UEMA	AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA OIER MINTEGI ZEBERIO
GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA	MIREN JOSUNE ZUBELDIA ETXEBERRIA ENEKO ELOLA JAUREGI



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

UDALBILTZA	LEYRE GORDO CASTRO JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA
HAURRESKOLA PARTZUERGOA	LEYRE GORDO CASTRO IGO EIZAGIRRE SAEZ
HILTEGI AMANKOMUNATUA	IGO EIZAGIRRE SAEZ JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA

Bozketa egin eta aho batez onartu dute.

BOSTGARRENA. INFORMAZIO BATZORDEAK ERATU ETA SORTZEA

2015eko maiatzaren 24an ospatutako hauteskundeak direla eta, 2015eko ekainaren 13an ospatutako bilkura berezian, Udal berria osaturik, Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa ikusten da, Udal honetako eta izaera iraunkorra izango duten, informazio-batzordeak eratu, osatu eta funtzionamendu erregimena ezartzea.

Berari dagozkion funtzioak, hauek dira: Udal Batzarrera eramango diren gaien ikerketa, txostena edo kontsultak egitea, premiazkoak diren erabakiak onartu behar direnetan ezik.

UEAF legearen 125 eta 124.2 artikuluek xedatutakoaren arabera, Udal Batzarrari dagokio, Alkate-Lehendakariaren proposamenaren arabera, zenbat eta zein izen izango duten proposatzea.

Guzti horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako UEAF legearen 38., 123tik 127ra eta 134tik 138 bitarteko artikuluek xedatutakoaren arabera, Alkatetzak, zera proposatzen dio Udal Batzarrari:

ERABAKIA

LEHENA.- Izaera iraunkorra izango duten, zerrendatzen diren informazio-batzordeak eratzea, izen hauekin:

HIRIGINTZA – GIZARTE ZERBITZUAK – OGASUNA – NEKAZARITZA – KULTURA

BIGARREN.- Informazio Batzordeen funtzioak, hauek izango dira: Udal Batzarrera eramango diren gaien ikerketa, txostena luzatzea, premiazkoak diren erabakiak onartu behar direnetan ezik.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

HIRUGARREN.- Informazio Batzordeak kide hauekin osatuko dira:

HIRIGINTZA	JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA
GIZARTE ZERBITZUAK	IGOR EIZAGIRRE SAEZ
OGASUNA	JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA
NEKAZARITZA	MIREN JOSUNE ZUBELDIA ETXEBERRIA
KULTURA	AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA OIER MINTEGI ZEBERIO

Bozketa egin eta aho batez onartu dute.

SEIGARRENA. BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Leyre Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia